

IRAGARKIAK

Pribatuen iragarkiak

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZINETATEA, S.A.

2332

IRAGARKIA, Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.ko (SPRI) erakundearen Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko apirilaren 28ko Ebazpenari buruzkoa, «Basque Industry 4.0.: I+G-ko Teknologiaren Transferentzia fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTetan 2017» Programa arautuko duen araudia onartzen duena.

2017ko apirilaren 28an, Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. (SPRI)ren Zuzendari Nagusiak, «Basque Industry 4.0.: I+G-ko Teknologiaren Transferentzia fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTetan 2017» Laguntza Programa argitaratzeari buruzko Ebazpena eman zuen, honako eduki honekin:

Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.k, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren menpeko sozietate publikoak, hainbat ekintza egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) industria, lehiakortasuna, enpresen arteko lankidetzak, ikerketa eta enpresen garapena sustatzeko.

Zentzu horretan, SPRIk hainbat ekintza garatzen ditu Euskadiko Agenda Digitala 2015 eta Europarako Agenda Digitala 2020 Planetan jasotako helburuak betetzeko. Ekintza horien artean aipatzekoak dira Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologia (EIKTak) euskal enpresetan txertatzea helburu duten laguntza programak.

Ondorioz, Laguntza Programa hau diseinatu da Ikerketa Industrialeko eta Garapen Esperimentaleko Proiektuak babesteko, zeintzuen bidez «teknologi hornitzaileen» teknologia manufacturako enpresa industrialei transferituko baitzaie Fabrikazio Aurreratuari aplikaturiko EIKTen esparruan.

Gorago adierazitakoaren arabera, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.ren Administrazio Kontseiluak 2017ko martxoaren 29ko saioan onartutakoarekin bat etorritik:

1.– «Basque Industry 4.0 2017» laguntza programaren araudia onartzea, zeinaren edukia atxikitua baitago Ebazpen honen eranskinean.

2.– «Basque Industry 4.0 2017» laguntza programaren araudia onartzen duen Ebazpen hau osorik argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Bilbao, 2017ko apirilaren 28a.

Zuzendari nagusia,
ALEXANDER ARRIOLA LIZARRITURRI.

ERANSKINA

Basque Industry 4.0 programa bat dator Euskadiren Agenda Digitala 2020 (ADE2020), Informazio Gizartea Garatzeko Plan Estrategikoan definitutako ekintza-politikekin.

Bestalde, Europako Batzordearen estrategiak Horizon 2020 programarekin Batasuneko herrialde kideen hazkunde-helburuak zehazten ditu, baina orobat lortu nahi du Europarako hazkunde adimenduna (ezagutzan eta berrikuntzan oinarrituriko ekonomia garatuz), sostengarria (ekonomia berde, baliabideen erabilpenaren aldetik eraginkor eta lehiakor baten bidez) eta integratzailea (enplegua bultzatuz eta kohesio soziala eta lurraldearena sustatuz). 2013an Europako Kontseiluak adierazi zuenez, «funtsezkoa da ekonomia digital sendoa izatea posible egiteko Europaren hazkundera eta lehiakortasuna mundu globalizatu honetan». Horregatik, ahalegina egin behar da Europako industria berriro indartu dadin produktu eta zerbitzu digitalen sektorean, adibidez telekomunikazioetan eta arlo digitalean merkatu bateratu bat sortuz mesedegarria izango dena kontsumitzaile eta enpresentzat.

Europarako 2020ko Agenda Digitala da Europako Batzordearen tresna garrantzitsuenetako bat hazkunde adimenduna sustatzeko, eta 7 zutabe ditu. Hona hemen zutabe horietatik bi:

– Merkatu Digital Bakarra: Europarako Agenda Digitalaren helburu nagusia da Merkatu Digital Bakarra garatzea enpresek eta herritarrek posible izan dezaten mundu digitalak eskaintzen dituen aukera guztiak garatu eta baliatzea, muga administratiboak oztopo izan gabe Batasunaren barruan.

– Ikerketa eta Berrikuntza: Europak inbertsio defizita dauka IKTen ikerketa eta berrikuntza arloan, eta horregatik atzeratuta dago beste ekonomia lehiakor batzuen aldean, bai IKTetako I+Gn egiten den gastu publikoari dagokionez, bai enpresa berritzaileen (bereziki ETEen) hazkunde eta garapenari dagokionez.

Era berean, Euskadiko 2020ko Agenda Digitalak 4 Jarduera Ardatz ditu:

- Enpresak Merkatu Digital Globalizatuan.
- Gizarte Lehiakorra eta Aktiboa.
- Administrazioa Ingurune Digitalean.
- Lurralde Adimenduna eta Kohesionatua.

Enpresak Merkatu Digital Globalizatuan ardatzaren helburua da aurrera egitea industria adimendunaren garapenean, jomugatzat harturik Basque Industry 4.0 estrategia eta Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategian definitutako sektoreak. Horretarako, garapen teknologiko berriek eta negozio-eredu berriek eskaintzen duten potentziala aprobetxatuko da. Hona hemen Ardatz horretako Erronkak:

- 1. Erronka: Industria adimenduna bultzatzea, EIKTak sartuz fabrikazioan, balio-kateak integratuz, eta balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak garatuz.
- 2. Erronka: EIKT aurreratuz eta irisgarriak sektore estrategiko industrialen esku jartzea.
- 3. Erronka: EIKTen erabilpena sustatzea, enpresa, negozio-eredu eta merkatura sartzeko modu berriak sortzeko, hazteko eta sendotzeko.

Basque Industry 4.0 programak erantzuna ematen dio industria adimenduna bultzatzeko erronkari, horretarako EIKTak sartuz fabrikazioan, balio-kateak integratuz, eta balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak garatuz. Hain zuzen, hauxe du helburu:

«Babesa ematea »teknologi hornitzaileen« teknologia (esaterako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileena) manufacturako enpresa industrialei Transferitzeko Proiektuei, beti ere Fabrikazio Aurreratuari aplikaturiko EIKTen (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologien) esparruan, demostrazio-balioa dutenean eta, hortaz, lagungarri direnean EIKTen arloko I+G-ko proiektuen emaitzak azkarrago merkaturatzeko».

1. artikulua.– Helburua.

Programa honen helburua da babesa ematea «teknologi hornitzaileen» teknologia (esaterako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileena) manufacturako enpresa industrialei Transferitzeko Proiektuei, beti ere Fabrikazio Aurreratuari aplikaturiko EIKTen (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologien) esparruan, demostrazio-balioa dutenean eta, hortaz, lagungarri direnean EIKTen arloko I+G-ko proiektuen emaitzak azkarrago merkaturatzeko.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Programa hau gauzatzean eta ebaztean publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak bete behar dira.

2.– Programa honek eta bertan arautzen diren laguntzek daukate norgehiagoka-prozedura bete behar dute.

3.– Programa honen bidez ematen diren diru-laguntzak itzuli beharrik gabeko fondo galdurako diru-laguntzak dira.

3. artikulua.– Aplikatzekoa den araudia.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– Abenduaren 17ko 698/1991 dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erki-degoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra eta ezartzen baitira berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

2.– Azaroaren 11ko Legegintzako 1/1997 Dekretua, EAEko Ogasun Orokorren Printzipio Antolatzaileak ezartzen dituen Legearen Testu Bateratua onartzen duena.

3.– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege hori garatzen duen Araudia (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) diru-laguntza arloko oinarrizko legeriari dagokion guztian (38/2003 Legea).

4.– Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Araudia (EB), zenbait laguntza-kategoria barne merkatuarekin bateragarriak direla aitortzen duena, Ituneko 107 eta 108. artikulua aplikatuz. (EBAO L 187/1).

5.– Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen abenduaren 17ko 1303/2013 Araudia (EB), laguntza programa honentzat aplikatzekoa den guztian.

4. artikulua.– Terminoak eta definizioak.

Programa honen ondorioetarako, honako definizio hauek finkatzen dira:

1.– «SPRI». Sociedad para la Transformación Competitiva – Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. sozietatearen izen komertziala, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikitako sozietate publikoa.

2.– Erantzukizuneko aitortpena. Erakundearen legezko ordezkariak egindako erantzukizuneko aitortpena, hauek egiaztatzen dituen:

a.– Erakundeko legezko ordezkariaren izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia (NAN) edo Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ).

b.– Erakundearen izena: Identifikazio Fiskalerako Zenbakia (IFZ), baltzuren helbidea eta eraketa-eguna.

c.– Gutxienez jarduera ekonomikoko zentro baten helbidea Euskal Autonomi Erkidegoan izatea, bertan egingo direlarik Laguntza Eskeran deskribatutako diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

d.– Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Zergaren kasuan kasuko epigrafean alta emanda egotea.

e.– Egunean egotea Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko edota haren kolaboratzaileekiko zerga betebeharratan, eta baita ere SPRI Taldeko edo/eta Eusko Jaurlaritzako enpresekiko dauzkaten betebeharratan.

f.– Proiektu hori gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuek eskatutako edo/eta emandako diru-laguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eman zen, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

g.– Enpresaren tamaina neurtzeko zehaztasunak.

h.– Arau honen 6.2.d artikuluan aurreikusitako egoeraren batean ez egotea.

i.– Armarik ez produzitzea, merkaturatzea edo finantzatzea, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz.

j.– Konpromisoa hartzea jasotako laguntzaren aurrerakina enpresaren kontabilitatean pasibo gisa islatzeko eta SPRIri itzultzeko, baldin eta itzultzea agintzen duen ebazpen bat ematen bada.

3.– Enpresa. Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

4.– Laguntzaren intentsitatea. Laguntzaren zenbateko gordina, diruz lagun daitezkeen kostuen ehunekoaren bidez adierazia. Kopuru hori zergen edota bestelako kargen kenkarien aurretikoa izango da.

5.– Enpresa handiak. 6a. puntuan ezarritako mugak gainditzen dituzten enpresak.

6.– Enpresa txiki eta ertainak (ETEak).

a.– 250 langile baino gutxiago dauzkaten enpresak, baldin eta 50 milioi eurotik gorako urteko negozio bolumenik ez badute edota 43 milioi eurotik gorako urteko balantze orokorrik ez badute.

b.– Enpresa ertainak: 50 eta 249 langile bitarte dauzkaten enpresak, baldin eta 10 eta 50 milioi euro bitarteko urteko negozio bolumena, edo, 10 eta 43 milioi euro bitarteko urteko balantze orokorra badute.

c.– Enpresa txikiak: 50 langile baino gutxiago dauzkaten enpresak, baldin eta 10 milioi eurotik beherako urteko negozio bolumena badute edota 10 milioi eurotik beherako urteko balantze orokorra badute.

d.– Langile kopurua, finantza-zenbatekoak eta erreferentzia epea zehazteko, Batzordearen 651/2014 (EB) Araudiaren I. eranskinean xedatutakoa izan beharko da kontuan.

7.– Ikerketa industrialak. Ikerketa planifikatua edo ikasketa kritikoak dira, helburutzat dutenak produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzeko edo lehendik existitzen direnak nabarmen hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen ezagutza eta gaitasun berriak barneratzea; bere baitan hartzen du sistema konplexuen sorkuntza eta bere baitan har dezake baita ere prototipoak eraikitzea laborategi batean edo interfaze simulatuetan lehendik existitzen diren sistemekin, edo linea pilotuak sortzea ikerketa industrialerako eta, zehazki, teknologia generikoa baliozkotzeko.

8.– Garapen esperimentalak.

a.– Lehendik existitzen diren ezagutza zientifikoak, teknologikoak, enpresa arlokoak edo beste mota batekoak barneratzea, konbinatzea, konfiguratzea eta aplikatzea, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobetuak egiteko; bere baitan har dezake baita ere, esaterako, produktu, prozesu edo zerbitzu berrien kontzeptuak definitzeko, planifikatzeko eta dokumentatzeko jarduerak.

b.– Garapen esperimentalak bere baitan har ditzake ondoko hauek: prototipoak sortzea, demostrazioa eta proiektu pilotuak egitea, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobetuak probatu eta baliozkotzea funtzionamendu baldintza errealak ordezkatzeko dituzten inguruneetan, betiere helburu nagusitzat badute hobekuntza teknikoak txertatzea behar bezala errotuta ez dauden produktu, prozesu edo zerbitzuetan. Era berean, bere baitan har dezake komertzialki erabil daitezkeen prototipo edo proiektu pilotuen garapena, baldin eta amaierako produktu komertziala badira eta horiek fabrikatzea garestiegia bada soilik demostrazio eta baliozkotze prozesuetan erabiltzeko.

c.– Garapen esperimentalak ez ditu bere baitan hartzen produktuetan, produkzio ildoetan, fabrikazio prozesuetan, lehendik existitzen diren zerbitzuetan eta aribidean dauden beste operazio batzuetan egiten diren ohiko edo aldizkako aldaketak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekarri;

9.– SPRIri baimena ematea eska dezan enpresak egunean izan ditzala zerga-ordainkizunak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak eta, era berean, kontsulta dezan JEZren (jarduera ekonomikoaren gaineko zergan) zein epigrafeetan dagoen alta emanda.

SPRIri baimena ematea ziurtagiriak eska diezazkien Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari, Zerga Administrazioari, Estatu Agentziari eta Araba, Bizkaia nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiei, ziurtagiri horien bidez bermatzeko ordezkaturako enpresak zerga administrazioekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela eta alta emanda dagoela Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren dagokion epigrafean edo epigrafeetan. Horrela, aurkeztutako laguntza eskaerak aztertu edota ordaindu ahal izango dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretuaren 50.3 artikuluari jarraiki, zeinak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen baitu.

5. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Programa honen xederako, hots, diru-laguntzak emateko erabiliko diren baliabide ekonomikoak 2.211.516 eurorainokoak dira, eta, SPRIk Informazio Gizartearen Sailean, 2017ko urteko aurrekontuen memorian, horretarako ezarritako aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira.

2.– Programa honen finantzaketarako funts publikoak eskatzaileen artean banatuko dira eta horretarako balioztatuko dira haiek aurkezten dituzten merezimenduak eta araudi honetan ezarritakoaren arabera bakoitzari dagokion diru-laguntzaren kopurua.

Diru-laguntza hauek Eskualdeen Garapeneko Europako Funtsak lagunduta finantzatzen dira (EGEFren ekarpena diruz lagundutako zenbateko osoaren % 50ekoa izango da). Hauek dira EGEFren ko-finantzaketak berekin dakartzan gutxieneko betebeharrak:

– Kontrol, erantzukizun, zehapen-araubide eta ez-betetzei dagokienez, onuradunak Estatuko eta EBko legeria bete behar ditu.

– Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragilearen esparruan kofinantzatuak dira laguntza hauek, eta horren berri eman beharko da jendaurrean, 1303/2013 (EB) Araudiaren 115. artikuluko 3. atalaren eta XII. eranskineko 2.2. atalaren arabera. Alde horretatik, baldin eta diruz lagundutako jardueri buruzko informazio eta komunikazio ekintzak egiten badira, EGEF bidezko kofinantzaketa komunitarioa aipatu beharko da hedapenerako erabilitako material edo euskarrietan, Batasunaren ikurra eta Europar Batasunaren erreferentzia txertatuta. Operazioa garatzen ari den bitartean, haren deskribapen labur bat egin beharko da bere webgunean, Batasunaren diru laguntza nabarmenduz bertan, eta gutxienez proiektuari buruzko informazio kartel bat -A3ko gutxieneko tamainan- jarriko da, non Batasunaren diru laguntza aipatuko baita jendeak ikusteko moduan.

– Laguntza onartuz gero, onartu egingo da, halaber, 1303/2013 (EB) Araudiaren 115. artikuluko 2. atalean jasotako operazioen zerrenda publikoan sartzea.

– EGEFren kofinantzaketa jasotzen duenak finantzaketari, administrazioari eta ekintzen garapenaren jarraipenari buruzko informazioa artxibatu behar du, harik eta operazioaren gastuak barne hartzen dituzten kontuak aurkeztu eta ondorengo abenduaren 31tik 3 urte igarotzen diren arte. Testuinguru horretan, onuradunak erraz eskuratzeko moduan izan beharko du informazio hori (kontabilitate-sistema bereizia edo berariazko kodeketa).

6. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Programa honetan ezartzen diren laguntzak eskuratu ahal izango dituzte proiektuak banaka aurkezten dituzten manufakturako enpresa industrialek.

2.– Onuradunek ondoko baldintza hauek bete behar dituzte:

a.– Kanpoko gastuetan eta inbertsioetan 75.000 eurotik gorako proiektuak garatzen dituzten enpresak izatea.

b.– Jarduera ekonomikoko zentro bat edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoan eta diruz lagun daitekeen jarduera EAEn gauzatzea.

c.– Egunean egotea Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan, eta baita ere SPRI, S.A. Taldearekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko dauzkaten betebeharretan.

d.– Ondoko egoeraren batean ez egotea:

Lehenengoa.– Diru-laguntza publikoak lortzeko edota Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioarekin edo bere sektore publikoarekin kontratatzeko legezko debekua edo gaitasun gabetzea izatea, horren barruan sartzen direlarik sexu bazterkeriagatik egoera horretan daudenak Emakume eta Gizonen berdintasunerako Legearen arabera.

Bigarrena.– Laguntzak berreskuratzeko agindu baten menpe egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne merkatuarekin bateraezina dela.

Hirugarrena.– Legegintzako 1/1997 Dekretuaren 50. artikuluko egoeretan eta 13/2003 Legearen 13. artikulukoetan egotea, zeinaren ondorioz ezin baita izan laguntzen onuradun.

Laugarrena.– Agintaritza eskudunak egiaztatzea ezen erakunde horrek lehia galarazten, murrizten edo faltsutzen duten jarduerak egiten dituela.

Bosgarrena.– Armak egiten, merkaturatzen eta finantzatzen aritzea, betiere abenduaren 28ko 14/2007 Legean, Herrialde Txiroetuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzkoan, ezarritakoari jarraiki.

Seigarrena.– Bere jarduera garatzea sektore hauetakoren batean: (i) arrantza eta nekazaritza, (ii) nekazaritzako produktuen lehen mailako produkzioa, eta (iii) nekazaritza produktuen eraldaketa eta merkaturatzea, 1407/2013 Araudiaren 1.1(c) artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Zazpigarrena.– Oraindik bete gabe izatea edozein administrazioetatik edo sektore publikoko edozein erakundetatik jasotako laguntza edo diru-laguntzei dagozkien zenbatekoak itzultzeko betebeharrak. Ezingo dute, halaber, deialdi honetan parte hartu zehapen-prozedura batean zehapen irmo bat jaso dutenek (betiere, laguntza publiko batetik datorren zehapena bada), edo horrelako programetan lehiatzea galarazten duten zehapenak dituztenek, baldin eta zehapena betetzen ari badira. Eskatzailea dirua itzultzeko prozedura batean edo mota horretako zehapen-prozedura baten barruan badago, horren emaitza ikusita emango -edo, hala badagokio, ordainduko- da laguntza.

Zortzigarrena.– Krisi-egoeran dagoen enpresa izatea, betiere krisi-egoeran dauden eta finantza arlokoak ez diren enpresen salbamendurako eta berregituraketarako Estatuko laguntzei buruzko Jarraibideetan azaltzen diren baldintzekin bat etorritik (DO, C 249, 2014-07-31).

Bederatzigarrena.– Diru-laguntzen deialdi hau egin aurreko 5 urteetan enpresa edota haren legezko ordezkariak epai irmo baten bidez kondenatuak izatea, laneko osasunaren aurkako delituen bat egiteagatik, eta, halaber, zehapen irmoa jasotzea, arlo horretan arau-hauste administratibo oso larria egiteagatik.

3.– Honako hauek ez dira izango onuradun:

a.– Administrazio Publikoek edo eurek sortutako enpresa edo erakundeek kapital gehiengoa edo erabakitzeko gaitasuna daukatenean.

b.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak.

4.– Laguntza eta likidazio eskaerak aurkezten diren arteko denbora osoan laguntzen onuradun izateko baldintzak bete beharko dira.

7.– Artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak,

Diruz laguntzeko moduko ekintzak izango dira helburu hau duten proiektuak: babes ematea «teknologi hornitzaileen» teknologia (esaterako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileena) manufakturako enpresa industrialei Transferitzeko Proiektuei, beti ere Fabrikazio Aurreratuari aplikaturiko EIKTen (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologien) esparruan, demostrazio-balioa dutenean eta, hortaz, lagungarri direnean EIKTen arloko I+G-ko proiektuen emaitzak azkarrago merkaturatzeko.

Proiektuek arlo hauetakoren batekin lotuta egon behar dute, fabrikazio aurreratuari aplikaturiko material eta prozesu aurreratuen eta CPS (Cyber Physical Systems) sistemen arloan:

- 1.– Zibersegurtasuna eta industria-komunikazioak.
- 2.– Cloud Computing-a.
- 3.– Big Data – Analitika Aurreratua eta Business Intelligence.
- 4.– Errobotika kolaboratiboa.
- 5.– Errealitate handituko proiektuak.
- 6.– Ikusmen artifizialeko proiektuak.
- 7.– Sentsorika.
- 8.– Metalezko materialen eta material aurreratuen diseinua eta gehikuntza bidezko fabrikazioa (zeramikak, compositeak, e.a.).

Material eta prozesu aurreratuen proiektuak.

Proiektuen TRL (Technology Readiness Levels) maila 5etik 9ra bitartekoa (biak barne) izan behar da.

Proiektuak gutxienez 75.000 euroko guztizko aurrekontua aurkeztu beharko du diru-laguntza jaso ahal izateko. Proiektuak 16 hileko iraupena izango du gehienez.

Ez dute diru-laguntzarik jasoko SPRIri lehenago aurkeztutako proiektuak eguneratzeko edota mantentzeko jarduerak, SPRIk edo Eusko Jaurlaritzak sustatuko programa honen edo beste edozeinen laguntzaren bat jaso badute.

TRL (Technology Readiness Levels) mailen deskribapena Europako Batasunak erabiltzen duena izango da, eta jarraian azaltzen da, laburpen gisa:

- TRL 1: Oinarrizko printzipioak hauteman eta jasotzen dira.
- TRL 2: Kontzeptu eta/edo aplikazio teknologikoa adierazten da.
- TRL 3. Funtzio kritiko analitikoa eta esperimentala eta/edo kontzeptu-proba bereizgarria.
- TRL 4: Osagaia baliozkotzen da eta/edo osagai horiek laborategiko ingurunean jartzen dira.
- TRL 5: Osagaia baliozkotzen da eta/edo osagai horiek ingurune adierazgarri batean jartzen dira.
- TRL 6: Sistema- edo azpisistema-eredua edo prototipoa ingurune adierazgarri batean probatzen da.
- TRL 7: Sistema edo prototipoa ingurune erreal batean probatzen da.
- TRL 8: Sistema osatua eta ziurtatua dago, proba eta demostrazioen bidez.
- TRL 9: Ingurune errealean arrakastaz probaturiko sistema da.

Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen jarduerak, gastu eta inbertsio hautagarriek eta horien guztien intentsitateak EBko 651/2014 Araudiaren 25. artikuluan ezarritakoa beteko dute.

8. artikulua.– Gastu eta inbertsio hautagarriak.

1.– Gastu eta inbertsio hautagarritzat hartuko dira kontzeptu hauek, 7. artikuluan zehazturiko diruz lagun daitezkeen jarduerekin lotuta:

– «I+G-ko agenteak» (esaterako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek) eskainitako orduen gastuak, barnean sartuz fabrian ematen den laguntza eta aholkularitza.

– «Inplantariaren» (aholkularitza eta ingeniariak enpresak) ordu-dedikazioaren gastuak, horren barnean sartuz fabrian ematen den laguntza eta aholkularitza.

«I+G-ko agenteak» eskainiriko jabetza industrialak eskuratzeko gastuak.

– Hardwareko eta softwareko inbertsioak eta/edo gastuak.

2.– Enpresa onuradunaren barneko langileen gastuak, diruz lagundutako proiektuari egoztekoak direnak, gehienez 30 euro/orduko kostu hautagarria onartuko delarik.

Gastu eta inbertsio hautagarriek ezingo dituzte gainditu gehieneko ehuneko hauek, diruz lagun daitezkeen proiektuaren aurrekontu osoa kontuan hartuta kalkulatu direnak:

– «Inplantariaren» (aholkularitza eta ingeniariak enpresak) ordu-dedikazioaren gastuak, horren barnean sartuz fabrian ematen den laguntza eta aholkularitza: gehienez % 20.

– Jabetza industrialak eskuratzeko gastuak: gehienez % 20.

– Hardwareko eta softwareko inbertsioak eta/edo gastuak: gehienez % 20.

3.– Enpresa onuradunaren barneko langileen gastuak: gehienez % 10.

Gastu eta inbertsio hautagarriek laguntza eskaera SPRIn aurkezten denetik aurrera eta data horren ondorengo 16 hilabeteetan sortuak edo fakturatuak izan behar dute.

4.– «I+G-ko agenteak» (esaterako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek) eskainitako orduen gastu hautagarriek baldintza hauek beteko dituzte:

a.– Fabrikazio aurreratuari aplikaturiko EIKTen esparruan -5etik 9ra bitarteko TRL mailan- I+G-ko jarduerak gauzatzen dituzten erakundeek eginikoak izango dira.

b.– Enpresa eskatzailearekin edo eskatzaileekin akzio edo partaidetzen bidez loturarik ez duten (ez zuzenean ez zeharka) erakundeek eginikoak izango dira.

5.– Enpresa eskatzailearekin inolako loturarik (ez zuzeneko ez zeharkakoa, ez eta akzio edo partizipazioen bidezkoa) ez duten erakundeek egingo dituzte «Inplantariaren» (aholkularitza eta ingeniariak enpresak) ordu-dedikazioaren gastu hautagarriak.

9. artikulua.– Gastu hautagarriari aplikatzeko baldintzak.

1.– Gastu hautagarriak baloratzeko, honako irizpideak izango dira kontuan:

a.– Gastu hautagarriek lotura zuzena izango dute programa honen helburu den lankidetzaren jarduerarekin.

b.– Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c.– Gastu hautagarriaren balioespena kutzako irizpidearen arabera izango da.

d.– Programaren Batzorde Exekutiboaren iritziz proiektuaren gastu-aurrekontua handiegia bada antzeko proiektuen batez besteko gastuekin alderatuta, bere esku egongo da gastu hautagarrien oinarria murriztea, gastu egokitzat eta proportzionatutzat jotzen den zenbatekoaren arabera.

e.– Fakturan aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da gastu hautagarria izango.

10. artikulua.– Laguntzen modalitateak eta zenbatekoak.

Deialdi honen xede diren laguntzak diru-laguntza gisa egituratuko dira onartutako gastu eta inbertsio hautagarriekiko portzentaje hauetan:

– Oro har, proiektuan onartutako gastu eta inbertsio hautagarrien % 25.

– Horrez gain, proiektuan onartutako gastu eta inbertsio hautagarrien % 15, lankidetzak efektiboa garatzen denean enpresa baten eta ikerketa organismo baten edo batzuen artean eta ezagutzaren zabalkundea egiten denean, betiere beren gain hartzen badute diruz lagundu daitezkeen kostuen gutxienez % 10 eta garatutako ikerketaren emaitzak argitaratzeko eskubidea gordetzen badute.

Proiektuek gehienez 150.000 euroko diru-laguntza jasoko dute proiektu bakoitzeko.

Diruz laguntzeko moduko jarduera bat edo gehiago egiteko ekitaldian zehar, enpresa bakoitzak urtean 200.000 euroko diru-laguntza jasoko du gehienez.

11. artikulua.– Laguntzak metatzea eta mugak.

1.– Programa honetan jasotako laguntzak eskuratzen dituzten erakundeek beste laguntza batez gain batzuk eskuratu ahal izango dituzte euren jardueretarako, edo Europako beste finantzabide batzuk, betiere gastu hautagarri berberetarako gehienezko laguntzaren muga errespetatzen bada.

2.– Laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango erakunde onuradunak garatzeko asmoa duen jardueraren kostua baino handiagoa, soilik laguntza hori aintzat hartuta edo edozein administrazioaren edo horien sektore publikoaren xede bererako emandako beste laguntza batzuk gehituta. Baldin eta beste laguntza publiko batzuk eta programa honen bidez emandakoa metaturik lortzen den zenbatekoak gainditu egiten badu kostu hori, murriztu egingo da programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko behar den neurrian.

3.– Epeka ordainduko diren laguntzak ematen diren momentuan duten balioaren arabera eguneratuko dira.

12. artikulua.– Laguntza eskaera.

1.– Aurreikusitako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek laguntza eskaera egiteko formularioa bete beharko dute SPRIren webgunean.

2.– Eskaera hori izenpe elektronikoaren bidez sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsona batek. Sinadura elektronikoaren eguna hartuko da aurkezpen-egun modura.

3.– Erakunde eskatzailearen eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira laguntza eskaeran.

4.– Laguntza eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a.– Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizuneko aitortpena.

b.– Legezko ordezkariaren notario-ahalordearen kopia.

- c.– Erakunde onuradunaren IFZ.
- d.– Memoriaren proiektua, hor sartuz:
- Hornitzaile teknologikoen eta inplantarien eskaintza teknikoa.
 - Eskaintza ekonomikoa, zehaztuz helburuak, eginkizunak eta kostuak eta barnean sartuz hornitzaile teknologikoaren gastuen banakapena eta hardwareko eta softwareko inbertsioak.
 - Proiektuaren laburpen exekutiboa (2 orrialde gehienez).
 - Arrazoiturik azaldu enpresan espero diren lehiakortasun-arloko hobekuntzak.
 - Ezarri behar den teknologia duen gaitasuna enpresak duen fabrikazio aurreratuko arazo bat konpontzeko.
 - Teknologia hori ezartzeak enpresan eragin ditzakeen hobekuntzak edo konpon ditzakeen arazoak.
 - Arrazoiturik azaldu proiektuak duen gaitasuna helarazi behar den teknologiaren TRL maila sustatzeko, emaitzak merkatura azkarrago helaraziz (merkaturatuz), ingurune erreal batean eta berrikuntzaren esparruan jardunez.
 - Proiektuak honako hauetan duen inpaktuaren justifikazioa: zuzeneko eta zeharkako enplegu sorkuntzan (kuantifikatu enplegu berriak zenbakitan) eta enpresa onuradunen fakturazio handiagoan edota esportazio ugariagoetan (kuantifikatu portzentajeetan aurreko urtearekin alderatuta eta termino ekonomikoetan, hots, eurotan).
 - Proiektua ezartzen duen lan-taldea (atxiki proiektuan inplikaturik dauden pertsonen CVA). Txosten bat, arrazoituz proiektuaren lan-taldean badaudela EIKTen ezarpenean adituak direnak, nahiz enpresa onuradunaren barnean bertan nahiz kanpoko aholkularitza-enpresa aditu baten bidez; horrela bermatuko da manufakturako enpresa industrialean ezarri den proiektuaren iraunkortasuna eta mantenimendua.
 - Proiektuak euskal ekonomian duen trakzio-eragina, eta proiektua beste enpresa-jarduera batzuetara zabaltzeko aukera.
- e.– Transferituko den teknologiaren azalpen-memoria. Azaldu zeintzuk diren hornitzaile teknologikoaren ezagutza teknikoak («aktibo teknologikotzat» hartzen direnak); hortik bereizi egin behar da hornitzaileak enpresa industrialari helarazi nahi dion ezagutza horren zatia. Azaldu teknologia horiek dituzten gaitasunak diseinuari laguntzeko eta ondasun eta zerbitzu berriak sortzeko. 4-5 orriko laburpen exekutibo bat sartu behar da, teknologia horiek deskribatuz.
- f.– SPRIri baimena ematea honek eska dezan zerga-ordainkizunak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak eguneratuak izatea eta, era berean, kontsulta dezan enpresa JEZen (jarduera ekonomikoen gaineko zergan) alta emanda dagoen epigrafea.
- g.– «Jabetza industrial erosteko gastuak» gastu hautagarri gisa aurkezten badira, alderdi biek sinatutako «kontratuaren» kopia atxiki beharko da, non jabetza industrial hori transferitzeko baldintzak eta prezioa jasoko baitira.
- 5.– Laguntzaren pizgarri efektua bermatzeko gainera, erakunde eskatzaileak laguntza eskaera egin duen dataren ondoren hasten diren proiektuek bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak.

6.– Enpresa onuradunak eta SPRIk baliozkotzat joko dituzte diru-laguntza eskaeran adierazitako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora posta elektronikoz bidaltzen diren jakinarazpen guztiak.

13. artikulua.– Laguntza eskaerak aurkezteko epea.

Laguntza eskaerak aurkezteko epea Programa Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamuneko 9:00etan (penintsulako ordua) hasiko da eta 2017ko ekainaren 28an (asteazkena), eguerdiko 15:00etan (penintsulako ordua) amaituko da.

Laguntza eskaera eta horrekin batera aurreko artikuluan eskatzen den dokumentazioa, diruz lagundu beharreko jarduera hasi baino lehen aurkeztu beharko dira.

14. artikulua.– Ebaluaketa eta ebazpen prozedura. Balorazio irizpideak.

1.– Diru-laguntzak onartzeko eskaera guztiak konparatuko dira, araudi honetan ezarritako balorazio irizpideei jarraiki horien arteko lehentasuna erabakitzeko, eta irizpide horien arabera balorazio handiena lortu dutenei esleituko zaie laguntza.

2.– SPRIko Administrazio Kontseiluak 2015eko martxoaren 30ean hartutako erabakiaren arabera eratu zen Programako Batzorde Exekutiboa, Alexander Arriola Lizarriturri, Jn., Aitor Urzelai Inza, Jn., Aitor Cobanera Rodríguez, Jn., Alberto Fernández González, Jn. eta Iñaki Suarez Arauzo, Jn. osatuta. Hala, berea da araudi honen arabera aurkeztutako eskaerak ebazpenak emateko eskumena, eta horiei buruzko deliberamenduak dagozkion aktan jasota geldituko dira.

3.– Laguntza eskaerak ebaluatzea. Espedientea osorik dagoen unearen arabera. SPRIk banan-banan aztertuko ditu epean aurkeztutako eskaerak, eta Programa honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko du. Programan parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak gaitzetsi egingo dira SPRIren Teknologia eta Berrikuntza Sailak banan-banako ebazpenen bidez, eta erabaki horiek enpresa eskatzaileei jakinaraziko zaizkie.

4.– Proiektuen ebaluazioa egingo da honako irizpide eta puntu-kopuru hauek aplikatuz:

– Enpresa onuradunaren edo onuradunen lehiakortasunaren hobekuntza, teknologia transferitzeko proiektua ezartzearen ondorioz. Hobekuntza horiek neurtuko dira enpresaren edo enpresen produktu, prozesu (ekoizpen-aurreko, ekoizpen eta ekoizpen-ondorengo), bitarteko eta sistemenkin modu orokorrean loturiko hobekuntzen bidez. Teknologia ezartzeak duen gaitasuna enpresak duen fabrikazio aurreratuko arazo bat konpontzeko. (20 puntu).

– Arrazoitzea proiektuak duen gaitasuna helarazi behar den teknologiaren TRL maila sustatzeko, emaitzak merkatura azkarrago helaraziz (merkaturatuz), ingurune erreal batean eta berrikuntza-aren esparruan jardunez. (20 puntu).

– Proiektuak duen gaitasuna enpresan bertan enplegua sortzeko (zuzenean eta zeharka), fakturazioa handitzeko edo enpresa onuradunen esportazioa areagotzeko (10 puntu).

– Transferitu behar den aktibo teknologikoak duen gaitasuna produktuak eta ekoizpen-prozesuak hobetzeko manufaktura aurreratuaren esparruan, Euskadiko manufaktura sektoreko enpresa industrialetan. Aktibo horiek diruz lagun daitezkeen CPSen esparruak hartuko dituzte (Zibersegurtasuna eta industria-komunikazioak, Cloud Computing-a, Big Data – Analitika Aurreratua eta Business Intelligence, Robotika Kolaboratiboa, Errealitate handitua, Ikusmen artifiziala, Sentsorika eta Diseinua eta gehikuntza bidezko fabrikazioa metalezko materialetan eta material aurreratuetan). (15 puntu).

– Proiektua ezartzen duen lan-taldea. Proiektuaren lan-taldean EIKTak ezartzen adituak egoitea, nahiz enpresa onuradunaren barnean bertan nahiz kanpoko aholkularitza-enpresa aditu baten bidez; horrela bermatuko da manufakturako enpresa industrialean ezarri den proiektuaren iraunkortasuna eta mantenimendua (10 puntu).

– Proiektua aurkezteko dokumentazioaren kalitatea. Helburu, eginkizun eta kostuen zehaztapen-maila. Hornitzaile teknologikoek eta enpresa industrial onuradunek proposaturiko lan-taldea. (10 puntu).

– Proiektuak euskal ekonomian duen trakzio-eragina, eta proiektua beste enpresa-jarduera batzuetara zabaltzeko aukera (15 puntu).

Irizpide bakoitzak puntuazio bat lor dezake gehienez. Puntuazioa lortzeko, irizpide bakoitza betetzen den ala ez begiratuko da.

Baztertu egingo dira diru-laguntza eskaerak, baldin eta bertako jarduerak puntuazio hau ez badute lortzen gutxienez: 10 puntu, «Lehiakortasuna hobetzea» irizpidean; 10 puntu «Proiektuaren gaitasuna teknologiaren TRL maila sustatzeko» irizpidean, eta 5 puntu «Proiektua ezartzeko lan-taldea» irizpidean.

5.– Ebazpena Programaren Batzorde Exekutiboak emango du, norgehiagoka erregimenean.

6.– Ebazpen epea. Hiru hilabeteko gehienezko epea ezartzen da ebazpena emateko, eskaerak dokumentazio guztiarekin aurkezten diren unetik zenbatzen hasita. Epe horretan ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

7.– Batzorde Exekutiboko idazkariak emango du ebazpenen berri, eta diruz lagunduko den jarduera gauzatzeko zenbateko diru-laguntza ematen den, zein baldintzatan eta zein epetan egin behar den ere jakinaraziko du; era berean, jarduera hori garatzeko beharrezkoa den beste edozein baldintza ere zehaztuko du.

8.– Erakunde eskatzaileak baliozkotzat joko ditu diru-laguntza eskaeran adierazitako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora SPRIk posta elektronikoz bidaltzen dituen jakinarazpen guztiak. Laguntza eskatzen duen enpresaren edota proiektuko liderraren posta elektronikoa bakarrik onartuko dira harremanetarako helbide gisa.

9.– Aipatu ebazpena emandakoan erakunde eskatzaileari posta elektronikoz jakinaraziko zaio, Batzorde Exekutiboak ebazpena emateko egin duen batzar egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta gehienez ere 15 eguneko epean.

10.– Araudi honetan jasotako epeen ondorioetarako ez da kontuan hartuko abuztua.

11.– Ebazpena SPRIren web-gunean argitaratuko da, denek izan dezaten eman diren laguntzen berri.

15. artikulua.– Likidazio-eskabidea. Aurkezteko epea.

1.– Diruz lagundu daitekeen jarduera amaitu eta 90 egun naturaleko epearen barnean, erakunde onuradunek proiektua burutu izana justifikatu beharko dute, SPRIren web-guneko likidazio-eskabidearen inprimakiak betez.

2.– Eskabide hori sinadura elektronikoaren bidez sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsona batek. Sinadura elektronikoaren eguna hartuko da aurkezpen-egun modura.

3.– Erakunde eskatzailearen eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira likidazio-eskabidean.

4.– Likidazio-eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a.– Gastu eta inbertsio hautagarrien fakturen kopia.

b.– Finantza-erakundeak ordaindu izanaren egiaztagirien kopia.

c.– Teknologia transferentziarako proiektuaren exekuzio memoria zehatza eta lortutako emaitzena.

d.– Finantza erakundearen egiaztagiriaren fotokopia, kontu korrontearen titulartasuna onuradunaren izenean dagoela frogatzeko eta zenbakia zein den zehazteko.

e.– Baimena ematea SPRIri zerga administrazioekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betearaz daitezen eskatzeko.

16. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

1.– Diru-laguntzak SPRIk gauzatuko ditu, bi ordainketa eginez. Lehenengo ordainketa diru-laguntza ematearen erabakia jakinarazi ondoren egingo da, eta diru-laguntzaren % 70ekoa izango da, ezar lekiokkeen berme-erregimenarekin. Bigarren ordainketa gainerako % 30a izango da, likidazio-eskabidea eta aurreko artikuluan eskatzen den froga-dokumentazioa aurkeztu ondoren.

2.– Baldin eta gastu hautagarria Programako Batzorde Exekutiboak diru-laguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa bada, diru-laguntza proportzionalki egokituko zaio gastuari.

3.– Likidazio eskaeran eskatutako egiaztagiriak aurkeztu eta gehienez 60 egun naturaleko epean egingo dizkie ordainketak SPRIk erakunde onuradunei, betiere Informazio Gizartearen Arloak egiaztagiri horiek ebaluatu eta oniritzia eman ondoren. Ez da zenbatuko SPRIren berrikuspenaren ondoriozko epea, ezta abuztua ere, ez baita jotzen hil balioduntzat.

17. artikulua.– Laguntza- edota likidazio-eskabideak zuzentzea.

1.– Laguntza- edota Likidazio-eskabideak ez badaude behar bezala beteta puntu guztietan edo ez bada eskatutako dokumentazio osoa ekartzen, SPRIk 10 egun balioduneko epea emango dio erakundearen legezko ordezkariari akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko.

2.– Epe hori igaro eta erakunde onuradunak ez badu zuzenketarik egin, SPRIk bertan behera utzi ahal izango du espedientea eta erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio.

18. artikulua.– Erakunde Onuradunen Betebeharrak.

1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoaz gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete beharko dituzte:

a.– Emandako laguntza onartzea. Hartara, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen denetik 15 eguneko epean eta SPRIren aurrean espresuki horri uko egin ezean, ulertuko da erakunde onuradunak laguntza onartu duela.

b.– Diru-laguntza ekintza plana garatzeko erabiltzea.

c.– SPRIk agiri osagarriak eska ditzakeela onartzea, eta, lagundu den proiektua burutu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzeko, SPRIk izendatutako pertsonalak instalazioetan beharrezko eta komenigarri jotzen dituen egiaztapen eta azterketak egin ditzakeela onartzea.

d.– Faktura osoak gordetzea eta SPRIn eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esku jartzea bost urtez, gastu hautagarriak burutzen direnetik aurrera.

e.– Laguntzen erabilera fiskalizatzeko eginkizuna betetzen duten aldetik, eskatutako informazioa eman behar zaie Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

f.– Xede berbererako beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo horiek emandako laguntzen eta diru-laguntzen edota beste edozein diru-sarrera edo baliabideren berri eman behar dio berehala SPRi.

g.– Diru-laguntza esleitzeko aintzat hartu den arrazoiren bat aldatu bada, horren berri eman behar zaio SPRi.

h.– SPRirekin kolaboratzea proiektuaren xedearekin lotutako hedapen ekintzetan, jardunbide egokien hedapenean parte hartuz.

19. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Laguntza emateko baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada eta, edozein kasutan, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzak edo diru-laguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide jaso badira xede berbererako, laguntza esleitzeko Ebazpena aldatu ahal izango da, betiere Programa honetan ezarritako gutxienezko baldintzak betetzen jarraitzen badira.

2.– Halaber, programaren kudeatzaileak jarduerak gauzatzeko luzapen bat eman dezake, baldin eta erakunde eskatzaileek hala eskatu eta behar bezala justifikatzen badute; luzapen horren ondorioz, gehienez, 3 hilabetez atzeratu ahal izango da programak gauzatzeko epea (16 hilabetekoa da epe hori). Salbuespen bezala, SPRIk epe-luzapen osagarriak onar ditzake, betiere, behar bezala justifikatuta badaude.

3.– Gauzatutako ekintzak Laguntza Eskaeran jasotakoak izango dira ezinbestean, nahiz eta Programako Batzorde Betearazleak aukera duen aldaketak baimentzeko, baldin eta onuradunak behar bezala justifikatu baditu jarduerak amaitu aurretik eta Programa honen hasierako helburuak hutsaltzen ez badira.

20. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ikusiko balitz erakunde onuradunak ez duela bete Programa honetan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta laguntzen ebazpenean ezarritako baldintzetakoren bat, emandako laguntza eskuratzeko eskubidea galduko du eta SPRi itzuli beharko dizkio ordura arte kobratu dituen laguntzen diru kopuruak gehi dagozkien legezko interesak, eta behar balitz, legezko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzul ditzan. Era berean, aholkularitza enpresak hutsegiteren egin badu, programa honi atxikitako beste proiektu batzuetan parte hartzea debeka dakioke.

2.– Zehazki, erakundeak laguntza exijitzeko eskubidea galduko du, edo, hala badagokio, jaso-tako zenbatekoak itzuli beharko ditu, honako kasu hauetan:

a.– Laguntza eskuratzeko Programa honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak edo laguntza emateak berekin zekartzen baldintzak bete gabe.

b.– Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

c.– Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako eskakizunak ez betetzea.

d.– Diruz lagundutako jarduera betetzeko epeak gainditzea, aldatzeko baimena edo luzapena eman ez bada.

e.– Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

3.– Bidegabe jasotako zenbatekoak hilabeteko epean itzuli beharko dira, erakundeari horren berri emandako egunetik zenbatzen hasita. Horrez gain, hilabete hori igaro ondoren eragindako legezko interesak ere ordaindu beharko dira.

4.– Halaber, gainfinantziarioa badago ordainketaren ostean beste laguntza batzuk jaso izanagatik, programak helburu duen jardueraren kostua gainditzen duen laguntza zatia itzuli beharko da, 10. artikuluan araututakoari jarraiki. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulera erabakitzeke emango den ebazpenean.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Erakunde onuradunek programa honi buruzko sustapen jarduera eta argitalpen guztietan adierazi beharko dute SPRIren laguntza jaso dutela.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraiki, emandako datu pertsonal guztiak SPRIren (Urkijo Zumarkalea 36-4.^a solairua, Bizkaia Plaza Eraikina, 48011 Bilbo) ardura-peko «Laguntzak» edo «Aholkulariak» izeneko fitxategietan gordeko dira.

Fitxategi horien helburua da SPRIk diseinatzen edota kudeatzen dituen laguntza/diru-laguntza espedienteak eta baita ere SPRIren zerbitzu eta laguntza eskaintzan parte hartzen duten edo SPRIrekin kolaboratzen duten profesionalen buruzko informazioa kudeatzea. Beharrezko balitz, informazio hori eman ahal izango zaie enpresa kolaboratzaileei, gai honetan eskumenak dauzkan Administrazio Publikoari eta SPRI taldeko enpresei.

Fitxategi horien berri eman zaio Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari, eta datuen erabateko segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartu dira.

Gogorarazten dizugu eman dizkiguzun datuetara sar zaitezkeela, eta beharrezko den kasuetan haiek zuzendu, aurka egin edo ezabatu ditzakezula, gorago aipatutako Legeak ezarritako terminoetan, SPRIko Segurtasun Arduradunari idatzizko jakinarazpen bat igorri (lop@spri.es).

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

SPRIren erabakia merkataritza alorrekoa da eta eskuduntza juridikzionala epaile eta auzitegi zibilena da. Enpresa onuradunak, eduki dezaketen edozein eskumeni formalki uko eginez, diru-laguntzen programa hau interpretatu edo gauzatzeko sor daitezkeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio konpontzeko Bilboko Justizia Auzitegien esanetara jartzen dira espreski, horiek baitira gai horietan eskuduntza dutenak.

Bilbao, 2017ko apirilaren 28a.

Zuzendari nagusia,
ALEXANDER ARRIOLA LIZARRITURRI.